

IHESA: ETXEA UTZI BEHAR IZATEN DUTEN PERTSONAK NOLA SENTITZEN DIREN JAKITEKO BIDAIA

Giza mugikortasuna erabat zalantzan jartzen gaituen eta etengabe hazten ari den errealitatea da. Horrek bultzatzen gaitu herrialde edo lurralde berri batean “salbu egoteko” beren jatorrizko lekuetatik ihes egin behar duten pertsonen eskubide urratuen alde lan egitera.

Hori dela eta, “bidaia” honen bidez, ikasleak migratzaileen eta errefuxiatuen errealitatera hurbilarazi nahi ditugu, haien bizipenetan murgilduta. Izan ere, munduan (ikuspegi globala) zer geratzen den jakiteak prestatu egiten gaitu aldaketaren parte izateko eta gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat sortzeko, harrera-gizartea izango dena (tokiko ikuspegia).



Nork har dezake parte?

Bigarren Hezkuntzako ikasleak, batez ere 2. mailakoek, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako ikastetxeetako ikasle-talde horiei laguntzen dieten irakasleak ere.



Noiz?

2025eko urtarriletik apirilera



Nola?

Irakasleentzako jarduera-gida eta zure ikastetxera bidaian laguntzera joango den hezitzaile-taldea.



Non eman behar dut izena?

www.edukalboan.org



Zalantzarik?

Galdetu hemen: educacion@alboan.org



ZURE IKASLEEKIN PARTE HARTU NAHI AL DUZU BIDAIA HONETAN? HONAKO HAU DA PLANA:

1. Bidaia prestatuko dugu:

- Gida bat emango dizugu ikasgelan aurretiko hausnarketa egin eta ikasleekin lantzeko.
- Munduan zer gertatzen den ikertu eta jakin behar dugu; zergatik utzi behar izaten du etxea hainbeste jende? Zein dira horretarako arrazoiak?
- Non zehar ibiltzen dira? Nolakoa da bidaia?
- Zer gertatzen zaie emakume eta neskatoei?

Irakasleek ikasgelan implementatzen dute



2. Ihesa:

- Ikasleak, laguntzen dieten irakasleekin batera, etxea uztera behartuta dauden pertsonen "lekuan" jarriko dira.
- Bideak, narratiba batean oinarrituta, ibilbide bati jarraikiz egin beharko dituzten probak adieraziko dizkie: ezkutuko mezuak, urratutako eskubideak, albiste faltsuak, etab.
- Jokoa amaitzean kode bat lortua izango dute. Kode horrek giltzarrapo bat zabaldu eta "sari" txiki bat jasotzeko aukera emango die.
- Garrantzitsuenak! Bizitako esperientziaz kontziente izatea, egin dituzten probek eragindako sentazioak aztertzea, prozesu horiek bizi izaten dituzten pertsonen errealitatea ezagutzea.

Alboaneko hezitzaile-talde bat zure ikastetxera joango da "Ihesa"-ren breakouta abian jartzera



3. Iritsi gara:

Esperientziaren ikaskuntzei buruzko hausnarketa.

- Zer egin zaie deigarriena jokoan bizitakotik?
- Zer ikasi dugu?
- Beraien ustez, nolako izan daiteke hainbeste pertsonak egin behar izaten duten bidaia horren errealitatea?
- Zer espero dute gure ingurunera, ustez harrera-herrialde direnara, iristen direnean?

Irakasleek Alboanen materialekin egindako "bidaia" jasotzen dute



Inplikatzeko proposamenak

- Zer egin dezakegu guk Harrera izateko?
- Denok dugu harrera egiteko eta jasotzeko gaitasuna, konprometituko al gara?

Alboanek HARRERA GARA proiektuaren parte izatera gonbidatzen zaitu, migratzaileen eta errefuxiatuen egoera ikusarazi eta haien alde jartzeko.

Migratzaile eta errefuxiatu bakoitzaren atzean min- eta sufrimendu istorio bat dago, baina baita itxaropen-istorio bat ere. Ez dugu parte hartu lehenengoan, baina parte har dezakegu itxaropen-istorioan, babestuz, harrera eginez, defendatuz eta benetako gizarte inklusibo baten alde lan eginez.

Gutako bakoitza aldaketaren eta harreraren eragile izan daiteke; gure inguruko pertsonak hobeto sentiaraz ditzakegu. Egin dezagun!